

Gipuzkoako udalerrietan indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko Protokoloa

2018ko ekaina



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Gipuzkoako udalerrietan indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko Protokoloa

1. Sarrera	2
2. Erreferentzia esparrua	4
2.1. Esparru juridikoa.....	4
2.2. Esparru terminologikoa.....	4
2.3. Instituzioen koordinazio esparrua	5
3. Protokoloaren helburuak.....	6
4. Indarkeria sexista kasuen aurrean jarraitu beharreko erantzun publikoari buruzko irizpidea.....	8
4.1. Erantzuna eraikitzeke oinarriak.....	9
4.2. Indarkeria sexistaren aurkako kultura bat suspertzea	10
4.3. Erantzun eszenatokiak	11
5. Protokoloaren hedapena.....	13
6. Protokoloaren Jarraipena.....	22
7. Eranskinak.....	23
7.1. I. Eranskina: Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontzeptu eta terminologia esparrua.....	23
7.2. II. Eranskina: Erakunde arteko II. akordioaren jarraipen batzordearen erabakia, 2013ko maiatzekoa. Etxeko tratu txarreatatik heriotza eta sexu eraso kasuetan jarduteko prozedura	26
7.3. Baliabideak.....	28
8. Web-gune interesgarriak.....	31



1. Sarrera

Komunikazio instituzionala da instituzio publikoek esan beharrekoa aditzera emateko bidea; horren bidez, alde batetik, biztanleriarekin duten harremana sendotzen dute eta bestetik, bere izaera osatzen duten balore eta printzipioak jakinarazten dituzte. Komunikazioak, egokia eta eraginkorra izateko, argia, osoa eta koherentea izan behar du instituzioa osatzen duen beste elementu batzuekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiak urteak daramatza emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko apustua egiten, horretarako arau eta egokitze esparru bat prestatuz: esaterako, 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa; 2016ko Aurre! Foru Plana, Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko; edo 2017ko Gipuzkoako Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean erantzun publikoa emateko Protokolo Instituzionala.

Foru arauak, informazioaren ekoizpena eta kudeaketari buruzko 22. Artikuluan, jasotzen du barne zein kanpo komunikazioaren helburua indarkeria matxistaren aurkako jarrera sozial eta instituzionala areagotzea dela; bilatzen den helburu nagusia Gipuzkoako lurralde osorako erreminta bateratu bakar bat osatzea da, zeinaren bidez amankomuneko eta kohesionatutako fronte sinboliko bat osatuko den.

Instituzioen komunikazioak funtsezko rola betetzen dute. emakumeen kontrako indarkeria mota ezberdinen ikustarazteko ezin daiteke zalantzan jarri zer-nolako gaitasuna duen honek difusioan eta gizartearen sentsibilizazioan, horrela oso hedaturik eta egituraturik dauden indarkeria hauei aurre egin ahal izateko, estereotipo eta aurreiritziak ezabatzeko eta biktimen babesa bultzatu eta indarkeria matxista gaitzesten duen imajinari soziala sortzeko. Aldi berean, Foru Arauaren 55. artikulua betetzea ahalbidetzen du, non, biztanleriaren, instituzioen eta komunikabideen mobilizazioa bultzatzen den, horrela indarkeria matxista mota guztiak aurkatzeko, modu publiko batean eta zero tolerantziatzko konpromiso politikoa azalduz.

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Planak indarkeria ikusezin eta normalizatua azaleratu beharra barneratzen du; horretarako, ezinbestekoa da kultura bat sortzea, biktimei laguntza sozial eta instituzionala ematen diena, erantzukizuna indarkeria eragiten duenarengan ezartzen duena, edozein indarkeria matxistaren justifikazio edota gutxiespena gaitzesten duena eta bizirauteko eta aurrera irteteko biktimek egiten duten esfortzua aitortzen duena.

2017an, Gipuzkoako emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean erantzun publikoa emateko lehen protokolo instituzionalaren garapenaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak beste aurrerapauso bat eman zuen emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eta berdintasunaren aldeko bere jarreraren eta lurraldeko agenteekin lan egiteko bere konpromisoan.

Lurralde Historiko osorako Protokolo bateratu eta estandarizatu bat osatzeak ibilbide honetan eman beharreko hurrengo pausoa eta irudi bateratua proiektatuko ditu, bai lurralde mailan, bai diskurtso mailan eta baita maila sinbolikoan ere, horren bidez zabaldu nahi den ideia argia eta indartua eman ahal izateko eta herritarrekin batera emakumeen aurkako indarkeria mota guztiari aurre egiteko fronte komun bat eratzeko. Lan honetan eragile sozialak inplikatzeko izaera bateratuko ibilbide bat eskaintzen du, eta salaketa bateratua tartekatzeko dinamika bat artikulatzen du, eta ezinbestekoa da komunikazio instituzionala ez ikustea inizatiba isolatu gisa, baizik eta elkarrekin lan egiten duten pertsonen osatutako nodo interkonektatu bat bezala, hartara sinergiak



sortzen dituen eta akzioei legitimotasuna ematen dien “mugimenduaren” edo akzio kolektiboaren irudi bat osatuz.

Gipuzkoako instituzio publikoen eta agente sozialen arteko kooperazioak mezua areagotzen du, eskala handiago eta anitzago batean, eta, bide batez, bere partaideak motibatu eta berdintasuna eta emakumeenganako errespetua sortzen duten patroik soziokulturalak sustatzen ditu.



2. Erreferentzia esparrua

2.1. Esparru juridikoa

Jarduketa hauen bidez **emakumeen indarkeriaren aurkako** indarrean dagoen legislazioa beteko da:

- i. Europar Kontseiluko prebentzioari eta emakumeen aurkako eta etxeko indarkeriaren aurkako borrokari buruzko Hitzarmena (Istanbuleko Protokoloa), 2011ko maiatzaren 11koa. Espainiar estatuak 2014ko apirilaren 11n berretsi zuena, eta 2014ko abuztuaren 1a geroztik indarrean dagoena.
- ii. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.
- iii. 1/2004 Lege Organikoa, Abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriena.

2.2. Esparru terminologikoa

Indarkeria aipatzeko dugun modua ez da kasualitatea. Hitzek erabilerak hitzek aipatzen duten errealitatearen gaineko ikuspegi zehatz bat erakusten du, eta sentsibilizatzeko, eraldaketa sozialerako eta jarrera hartzeko tresna ere izan behar du.

Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan bada halako nahaste terminologiko bat, batzuetan termino batzuk nola erabili ez pentsatzearen ondorioz, edo hitz horien atzean dagoenarekiko kezka urriaren eraginez. Horregatik, Protokolo honek oinarri dituen irizpideak hasieratik bertatik finkatzea komeni da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak "indarkeria matxista"¹ terminoa hartzen du erabilera orokortzat, sorburuan sozializazio bikoa (gizona – emakumea) eta genero desberdintasuna dituen indarkeriari buruz ari denean. Beraz, "indarkeria matxistari"² buruz aritzean honakoak ari gara aipatzen:

- Indarkeria sexista, hau da, emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten dutena, eta helburu eta ondorio emakumeen gaineko kontrola eta nagusitasuna betikotzea duena.
- Genero rol sozial bikoei eta horiei lotutako sexualitateari egokitzen ez zaizkien pertsonak jasaten dituzten beste indarkeria batzuk. Homofobia, lesbofobia eta transfobiaz ari gara.

Indarkeria matxistaren kontra borrokatzeko, foru politikak indarkeria sexista edo emakumeen kontrako indarkeriara jo du nagusiki, esparru horretan baitutu Aldundiak arretarekin, ikerkuntzarekin eta prebentzioarekin lotutako eskumen zuzenak. Alabaina, gogoratu behar da ezen, prebentzioaren, prestakuntzaren eta ikerkuntzaren bidez indarkeria matxistaren beste forma batzuei ere heltzen zaiela, zeinak, hain hedatuta ez egon arren eta eragin sozial txikiagokoak badira ere, ez ditugun garrantzi gutxiagokotzat jo behar.

¹ Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren 51. artikulua.

² [Ikusi 'Indarkeria matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria'.](#)



Adierazitako esparru terminologikoarekiko³ eta indarkeria forma horietako bakoitzarentzako foru politika espezifikoaren garapenarekiko koherenziaren bidetik, Protokolo honek finkatu egiten ditu emakumeen kontrako indarkeria kasuetarako, hots, **indarkeria sexista** kasuetarako erantzun instituzionala emateko prozedurak.

2.3. Instituzioen koordinazio esparrua

Aurre! Foru Planak hiru koordinazio planoak hartzen ditu kontuan: forala, lurralde mailakoa eta autonomia mailakoa.

- Gipuzkoak zeharkakotasunaren irizpidepean heltzen dio indarkeria sexistaren kontrako foru politikari. Horren kudeaketak, batetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa inplikatzeko (politika bultzatzeko, koordinatzeko eta jarraipena egiteko arduraduna da), eta bestetik, biktimen arretaren eta indarkeria sexistaren arloko prestakuntza, ikerkuntza, sentsibilizazio eta prebentzioaren ardura duten departamentuak.
- Lurralde esparruan, foru eta udal jarduera berdintasunerako eta indarkeria matxistaren kontrako politika publikoetako ikuspegi partekatatu baten gainean egituratzen da, esku-hartzeen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko lan-sarea finkatu eta sendotzeko. Lan-sare hori maila foralean eta udal mailan, eta gizarte zerbitzuetako eta berdintasunerako arloen artean artikulatzen da.
- EAE mailan, Gipuzkoako Foru Aldundia Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren parte da (Erakundearen arteko I. Akordioa 2001ean sinatu zen), eta haren jarraipen batzordearen parte da halaber. Akordio hori dugu indarkeria sexistaren biktima diren emakumeei ematen zaien arretan inplikaturako euskal erakundearen arteko koordinazioa hobetzeko oinarria.

2013ko maiatzean egindako bileran, Erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeak jarduera prozedurak finkatu eta adostu zituen, etxeko tratu txarreatatik eta sexu indarkeriatatik gertatzen diren heriotza kasuen aurrean erantzun instituzional koordinatua emateko. Gaurkotze honen xedea arbuioa eta gaitzespena adieraztea eta biktimen familiei eta, hala dagokionean, adin txikiko seme-alaba biktimei erakundearen laguntza ematea da batetik, eta, bestetik, erakundeek ematen duten arreta eta erakundearen esku-hartze eta koordinazioa hobetzea, azken batean emakume gehiago hiltzea saihesteko.

Protokolo hau etxeko tratu txarrak gertatzen ari diren egoera baten ondorioz bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumea hiltzen duenean aktibatzen da, eta baita emakumea hiltzen dutenean ere, sexu eraso bitarte.

II. Akordioaren sinatzailea izaki, Gipuzkoako Foru Aldunditik onartzen da etxeko tratu txarreatatik eta sexu erasoengatik gertatzen diren heriotza kasuetan jarduteko prozedura (2. eranskina); eta prozedura hori sartu egiten dugu Protokolo honetan, aktibatzen den kasu zehatzetan, eta gainera testuko 1. koma-arteko C puntua garatzen dugu, horretan zehazten baita gaitzespen ekitaldietan kasuan kasuko Foru Aldundiaren ordezkari bat behintzat izango dela.

³ Nazio, estatu eta Europa mailako zenbait erakundeek bereizi gabe erabiltzen dituztenez kontzeptu desberdinak aipatzen dituzten terminoak, eta horrek eragin dezakeen nahastea saihestearren, 1. Eranskinak proposamen terminologikoaren garapena jasotzen du, beste erakunde batzuek erabiltzen dituzten kontzeptuekiko baliokidetasunekin batera.



3. Protokoloaren helburuak

Indarkeria sexistaren arazoaren arazoiek, hots emakumeen kontrola helburu duen harreman eta jarrerak, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun estruktural eta sinbolikoetan dautza. Aipatutako guztia dela eta, ezin da azaldu pertsonen arteko indarkeria bezala soilik, gizarte oso baten isla bezala baizik. Behar bezalako arreta eta erantzun publikoa emateko, ezinbestekoa da indarkeria mota honen nahitasuna azaltzea: emakumeen autonomia eta erabakitze gaitasunen kontrol eta menderatzea, emakume izate hutsagatik horren bidez emakumeari eta bere inguru afektibo eta sozialari kalte ezberdinak eraginez.

Erantzun egoki bat emateko ezinbestekoa da esku-hartze eta jarduera publikoa era zabal batean eman ahal izatea: ahalduntzea, emakumeek indarkeria egoeratik irteteko aukera eta gaitasunen areagotze bide bezala hartu behar da, eta instituzioen aldetik babes jarraitu bat eman behar zaio biktimari indarkeria egoeratik irteteko ibilbide ezberdinetan lagunduz, biktimen aukerei, baliabideei eta bizi duten testuinguruari egokituz.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek indarkeria sexista (emakumeen aurkako kontrol eta euren biziko arlo guztietako menderatze modu bezala ulertutakoa) ezabatzeko konpromiso eta mandatua daukate, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak jasotzen duen moduan emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko VII. Kapituluari.

Mandatu hori zehazteko, udalerrietan, neurri handiagoan edo txikiagoan, txertatzen joan dira zenbait aspektu indarkeria sexistari aurre egiteko:

- Udalerriko zerbitzu sozialak indarkeria sexistaren biktimekin esku-hartzeko sarbide bilakatzen dituztenak.
- Arazoaren iturburua lantzekoak, hau da, prebentzio politikak, eta ez soilik bere ondorioak.
- Ez dietenak biktimei errua leporatzen eta sentsibilizazio kanpainen bidez erantzukizun soziala bultzatzen dutenak.
- Indarkeria sexistaren arloko prebentzio eta arreta lanetan diharduten udalerriko sail ezberdinen arteko erantzun koordinatua bultzatzen dutenak.
- Mugimendu feministarekin eta beste agente sozial batzuekin adosten dutenak Emakumeen Giza Eskubideen urraketa latz baten aurrean behar bezalako erantzuna ematea.

Indarkeria horrek sostengu duen oinarri sakonak ez du zalantzarako tokirik uzten: gizarte eraldaketa aktibatu behar dugu, desberdintasunaren sorburuari ekin eta dituen adierazpenak erauzteko. Bakar-bakarrik horrela lortuko dugu emakumeak eta gizonak berdin babestuta dauden Gipuzkoa bat, ez baina soilik legeetan jasoz berdintasun hori, baizik eta baita eguneroko bizimoduan eskubideak baliatzeko unean ere.

Protokolo honek tresna bat eskaintzen du beharrezko gizarte eraldaketa hori are bizkortzeko, erakunde publikoan bertan hasirik gainera, horretan jarraibide egonkor eta sistematizatuak sortzen baititu, aurrez adostuak eta agindu mailara eramanez. Beraz, biktimei arreta osoa eta lehentasunezkoa emateko mekanismoak osatzen ditu,



erasotzaileekiko gaitzespen adierazpen argi eta publiko berriez eta biktimei erabateko laguntza erakutsi eta emanaz. Era berean, gizarteari salaketa bateratuak tartekatze bidea ematen dio, aurrez ezaguna eta, horrenbestez, aurreikusgarria den bidea alegia, horrela gizartearen beraren partaidetza ahalbidetu eta bultzatuz.

Protokolo honen helburuen artean, beraz, honako hauek nabarmentzen dira:

- Erakundearen **erantzun integrala eta garbia** egituratzea, eta erakundearen eta erakundea osatzen duten pertsonen jarrera sendo eta tinko proiektatzea.
- **Efizientzian** irabaztea indarkeriari ematen zaioen erantzun publikoari dagokionez, erakundeen koordinazioa optimizatzea ahalbidetuta.
- Gizarte eragileen eta herritarren **adierazpen bideak** sendotzea emakumeen kontrako erasoen aurreko **erantzun** publikoari dagokionez, beste jarduera batzuen osagarri jardunez.
- **Gipuzkoako Lurraldeko udalen gaitzespena** publikoa erakustea indarkeria sexista mota guztiei eta biktimei laguntzeagatik edozein indarkeria pairatzen duenari.
- **Sentsibilizazioan** laguntzea eta zero tolerantziaren kultura sendotzea indarkeria sexistaren adierazpen ororen aurrean, edozein esparrutan eta indarkeria horren formetako edozeinetan.
- Edozein eraso sexistaren biktimari **arreta ziurtatzea**, zerbitzuak eta baliabideak direla medio. Zerbitzu eta baliabide horiek foru eskumeneko zerbitzu espezializatuak eta udal zerbitzuen arteko koordinaziopean emango dira.
- Emakumeen **eskubideak eta askatasuna indartzen** laguntzea, emakumeen segurtasuna bermatuz beldurraren kulturarik sorrarazi gabe.
- Biktimak errudun egingo ez dituen eta erantzukizuna erasotzaileei egotziko dien **indarkeria sexistaren tratamendua** bultzatzea hedabideetan.
- **Gipuzkoaren identitatea** eta indarkeria sexistaren kontrako jarrera sendotzea: Gipuzkoa, emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko lurraldea.



4. Indarkeria sexista kasuen aurrean jarraitu beharreko erantzun publikoari buruzko irizpidea

Erantzun sendoa

Indarkeria sexistarekiko zero tolerantziaren kultura eraikitzeko ezinbestekoa da salaketan argi eta erabakitasunez jokatzeko, eta edozein indarkeria ekintza ukatzen, normaltzen, minimizatzen edota justifikatzen duten argudio eta adierazpenak sistematikoki desmuntatzea. Indarkeriaren adierazpen guztiak dira arbuigarriak.

Oro har, gertatzen diren erasoaren aurrean ematen den erantzun publikoa bideratu behar da emakumeen kontrako indarkeriazko jarrerak ez direla toleratzen erakustera, Zorrotz eta inolako zalantzarik gabe adierazita, ez dago inpunitaterik ez isiltasun legitimatzailearik erasotzaileentzat, beti-beti errespetatuko da horien errugabetasun presuntzioa eta ez da zalantzarik onartuko biktimaren kontakizunaren sinesgarritasunaren gainean.

Errespetuzko erantzuna

Gerta daitezkeen egoeretan are sakonagora joz, biktinek, sarritan, bere burua ez erakustera jotze hori biktimen gainean ezartzen den estigma sozialaren sintomatza uler daiteke batetik eta, bestetik, norberaren babeserako neurritzat; horrenbestez, erakundeek errespetatu eta bermatu egingo dute hori. Eta garrantzitsua da horrela jokatzeko zeren eta, alde batetik, berekin baitakar erantzun publiko, egoki eta proportzionala kasuen banakako analisisian oinarritzea, errespetu eta empatia arrazoi begi-bistakoen indarrez, eta bestetik erantzun horrek herritar guztientzako elementu hezitzaile bihurtu nahi baitu; beraz, berehalakotasunaren presioaren aurrean blindatuta jardun behar da. Berehalakoa izan behar duu biktimari ematen zaion arreta; horrela, biktima eta beraren ingurua zaintzeak lehentasuna izango du.

Inpunitatea gelditzea

Indarkeria sexista gertatzen den kasuetan, erantzukizuna erasotzaileena da. Inoiz ez biktimena. Eta inpunitaterik izan ez dadin, garrantzitsua da gizarteak eta erakundeek tinko erakustea erasotzaileen ekintzek eragiten duten arbuio soziala. Horregatik, erakundeek bultzatuko dituzten adierazpen publikoen irismenaren inguruko erabakia hartu behar denean, baloratu egingo da adierazpen publiko horrek murriztu edo brida dezakeen erasotzaileen inpunitatea indarkeria sexista gertatutako kasuetan; kontuan harturik, betiere, batzuen errugabetasun presuntzioa zein biktimekiko errespetua.



Berbiktimizazioa saihestea

Indarkeria sexistaren sorburu estrukturala dela eta, sarritan, indarkeria sexista kasu bat denean, ez da behar bezala jarduten. Biktimak kuestionatu egiten dira, edo jasandako indarkeriaren arduradun bihurtzen ditugu. Eta fenomeno horren eraginez, maiz askotan biktimak errudun sentitzen dira. Horregatik, garrantzitsua da mezuetan gogoratzea indarkeriaren erantzukizuna indarkeria baliatzen dutenena dela, ez biktimena; eta saihestu egin behar da biktimak estigmatizatzen dituen mekanismorik martxan jartzea.

4.1. Erantzuna eraikitzeo oinarriak

Salaketaren eta indarkeriaren kontrako arbuio eta gaitzespenaren garrantziari buruzko kontsiderazioak, azalpen honetan jada aipatuak, zalantzagabeak dira erabat. Alabaina, Protokolo honek sustatzen duen erantzun instituzionalak oinarri dituen jarduera printzipioek Protokolo hau txertatzen zaion arreta sistemaren erdigunean kokatzen dute biktimaren eta beronen inguruaren babesa.

Horregatik oinarrizko printzipio batzuk ezartzen dira, honakoak:

- **Biktimei zuzendutako lehenasunezko arreta:** Eraso sexista bat ikusten edo izan dela jakiten den bakoitzean, lehenasunezko jarduera biktimei arreta ematea izango da, eta horien esku jarriko dira beharrezko bitartekoak. Aipatu moduan, biktimei arreta egiteak hartzen dituzten erabakiak errespetatzea ere badakar berekin.
- **Erantzun bizkor, koordinatu eta eraginkorra:** Eraso sexista baten berri dugun bakoitzean, erantzuna bizkorra eta koherentea izango da, arazoan murgildutako erakunde guztiekin koordinatua, eta eraginkorra, hau da, Protokolo honetako helburu guztiak betetzera zuzendua.
- **Erasotzaileak arbuiatzea:** Indarkeria sexista indarkeriaz jokatzeko duenaren erantzukizuna da beti eta, beraz, erasoak eta erasotzaileak arbuiatzeko eta gaitzesteko erantzuna sustatuko da.
- **Informazio konfiantzazkoa:** Gizarte alarma saihesteko arduraz jokatu behar da, gertaerei buruzko informazioa kontrastatuta. Oinarri sendorik gabeko erantzun batek ez dio zero tolerantziaren kulturari mesede egiten, eta kaltegarria izan daiteke biktimentzat zein ustezko erasotzaileentzat.
- **Informazio konfidentziala:** Biktimaren datuak eta erasoak nola gertatu den adierazten duten xehetasunak konfidentzialak dira eta 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoak⁴, babesten ditu. Hori dela eta, mota horretako informazioa biktimekiko arretaren ardura duten teknikarien esku bakarrik egon daiteke. Beraz, erantzun publikoa antolatzeke behar den informazioak datu pertsonalak ekidingo ditu (biktimaren izen-abizenak, helbidea...), eta baita ere erantzun publikoa prestatzeko ezinbestekoak ez diren erasoari buruzko xehetasunak.

⁴ <https://www.boe.es/boe/dias/1999/12/14/pdfs/A43088-43099.pdf>



- **Prebentziozko jarduera:** Egunero egiten den indarkeria sexistaren prebentziorako lana areagotu, indartu egingo da erasoren bat gertatzen denean, batez ere biktimen inguruan, biktimak estigmatizatzea eta errudun sentitzea saihesteko eta sentsibilizazioa sendotzeko.

4.2. Indarkeria sexistaren aurkako kultura bat suspertzea

Udalen, Mankomunitateen eta Eskualdeen erantzun publikoek, indarkeria sexistaren biktimen aldeko erreparazio moduak direnez gero, indargabetu egin dute indarkeria mota honen aurka aurrerapausorik ematen ez delako ideia hori, eta neke sozialari aurre egin behar diote.

Horretarako, biktimen babeserako neurriak indartzeaz eta euren segurtasuna lantzeaz gain, hurrengo erremintak erabiltzea komeni da:

Udalerriko espazioak erabiltzea indarkeria sexista aurkatzeko.

- Udalerrian seinale ezberdinak jartzea, adierazteko udalerrri horretan berdintasuna babestu eta indarkeriaren aurka egiten dela.
- Udalerrian seinale ezberdinak jartzea, adierazteko udalerrri hori emakumeekin adeitsua eta atsegina den espazio bat dela.
- Udalerriko espazioak erabiltzea, informaziozko materialak banatzeko eta indarkeria sexistaren aurkako irudi eta mezuak publikatzeko.
- Gaitzespen instituzionaleko kontzentrazioak.
- Udalak, Mankomunitateak edo eskualdeak indarkeria sexista baten aurkako kontzentrazio bat lan orduetan egitea erabakitzen duenean, deialdira udaleko langileak ere deitzea.
- Agerraldi publikoak, notak eta prentsaurrekoak.
- Irakurketa eta mezu hezigarriak udalerriko web guneeetan.
- Udalerriko jarduerak bertan behera uztea dolua erekusteko.



4.3. Erantzun eszenatokiak

Protokoloa maila desberdinetan aktibatzen da eraso sexistatzat har daitezkeen gertaera guztien aurrean. Horretarako, erantzun eszenatoki desberdinak ezartzen ditu, eskubide urraketaren larritasunaren arabera.

Kasu guztiak salagarriak dira, guztiak jasotzen dute erakundeen eta herritarren arbuioa, eta gaitzespen adierazpenerako tresna sistematizatuak eskaintzen dira.

0 eszenatokia

- Erantzun publikoaren koordinazioa Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordean adostuaren bidez arautzen diren kasuak⁵:
- Emakume bat bikotekideak edo bikotekide ohiak hiltzen duenean, etxeko tratu txar egoera baten ondorioz.
- Emakumea sexu eraso bidez erailtzen dutenean.

1. eszenatokia

- Bikotekideak, bikotekide ohiak, senide batek, ezagun edo ezezagun batek emakumea erailtzea edo erailtzen saiatzea.
- Genero indarkeriaren biktima den emakume baten seme-alabak hiltzea edo hiltzen saiatzea.
- Indarkeria sexistaren biktima hiltzea, denbora bat lehenago izandako eraso baten ondorioz.

⁵ II. Eranskina ikusi



2. eszenatokia

- Biktima den emakumearen osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten lesio larriak eragin dituen eraso.
- Sexu eraso, sexu abusua eta erasoarekin batera izan daitezkeen beste zertzelada larrigarri batzuk, hala nola bahiketa, eraso kolektiboa, konortea galaraztea edo konorte galtze hori erasotzeko baliatzea.
- Sexu jazarpena edota jazarpen sexista laneko edota irakaskuntzako esparruan edo beste esparru batzuetan, jazarpen hori denboran zehar errepikatzeko aukera dagoenean.
- Erasotzailea edo erasotzaileak funtzionario publikoak, segurtasun gorpuetako langileak edo udalerriko eragile esanguratsuetako langileren bat den kasuetan edota agresioa behin baino gehiagotan eman bada erasotzaile beraren eskutik (biktimaren bikote edo bikote ohia izan edo izan ez den kasuetan), leku berean eta hemen aurreikusten ez diren egoeretan, delitua larriagotzat hartu ahal izango da gerora begira.
- Erasoak espazio publikoetan gertatzen direnean, beste pertsona batzuen aurrean.

3. eszenatokia

- Lesio gabeko edo lesio oso larririk gabeko eraso bat, zeinak biktimaren ezaugarriengatik, udalerrigatik edo beste edozein egoera dela eta alarma sozial berezi edo garrantzitsutzat jo daitekeena eragin duenean.
- Balorazio bat egin ondoren eskubideen aurkako urrapen berezitzat jo eta arestian aipatu ez den edozein egoeraren aurrean.



5. Protokoloaren hedapena

1. Pausoa. Protokoloa aktibatzea

Protokoloa beti aktibatuko da hurrengo kasuetan:

- Udalerrian gertatutako kasuetan.
- Udalerrik kanpo gertatu direnean gertaerak, baina biktima edo erasotzailea udalerrian bizi edota bertakoa denean.
- Aurreko bi kasuetan biktima defendatzen edo horri laguntzen joan eta horren ondorioz erasotua izan denean pertsona bat.

2. Pausoa. Biktimarekin eta haren ingurukoekin kontaktua

Udalak erantzun protokoloa badu edota ez badu ere, emakume biktimen arretan lan egiten duten zerbitzuen arduradunen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Departamenduaren arteko koordinazioa ezarriko da biktimarekin edo familiarekin harremanetan jartzeko (betiere biktimak ezin badu erabaki eraila izan delako, ospitaleratuta edo shock egoeran dagoelako) eta bi erakundeek dauzkaten arreta baliabideak eskaintzeko..

Biktima Udaleko edo Aldundiko zerbitzu batekin harremanetan egon bada edo badago, arreta hau zabalduko da erasotik eratorritako beharrianak asetzeko. Adin txikikoen kasuan, lehenik eta behin familiarekin edota legezko tutorearekin hitz egin beharko da babesa eskaintzeko eta biktimarekin harremanetan jartzeko.

Biktimari edo bere senideei jakinaraziko zaie Udalak gertatutakoaren aurrean horri aurre egiteko akzioak egingo dituela. Kontzentrazio baterako deialdi bat egiteko aukeraren berri emango da. Biktima edo bere familia ez badator bat edo zalantzak baditu biztanleria biltzen duen ekintza bat egiteko, erreakzio hori baloratuko da udalerrri bakoitzean dagokion egiturari, baina ez da beti zertan erantzun publikoa bertan behera utzi behar.

Kontuan izan behar da erantzunaren urgentziak ezin izango duela beti biktimaren edota bere familiaren erreakzionatzeko behar eta gaitasunekin bat egin, beraz, ezin zaie erantzun publikoa emateko arloan hartutako erabakien erantzule egin. Komunikazio errespetutsua izango da, baina erantzun publikoa ematearen erabakia autoritate foral, udalerrikoei eta autonomikoei dagokie.

Aipatutakoa, baliagarria da biktima adin txikikoa denean eta prozesuan zehar bere familiarekin edota tutorearekin egiten denean komunikazioa.

Honek guztiak ez du alde batera utzi behar biktimaren eta bere familiaren garrantzia, eta ezinbestekoa da inguruaren eta udal eta foru politikarien laguntasuna sentitzea.



3. Pausoa. Erasoaren gaineko informazioa biltzea

Protokoloa aktibatzen duen egitura udalerrikoa edo forala den kasuetan, bilerak egingo dira edota telefono bidezko edota beste bide elektroniko baten bidezko komunikazioa ezarriko da, erasoaren gaineko informazioa biltze aldera:

- Informazio garrantzitsua duten udal arloetako arduradunekin.
- Kasuaren ardura daraman Ertzaintzaren Komisariaren arduradunekin.
- Gertaerak izan diren udalerrria kokatuta dagoen ESiren, hots, Erakunde Sanitario Integratuaren arduradunekin, eta Osakidetzaren iritziz informazio garrantzitsua eman dezaketen langileekin.
- Foru Saitetako zuzendariekin edo horiek eginkizun hori delegatzen dieten pertsonekin.
- Informazio garrantzitsua izan dezaketen mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteekin.
- Kasuaren informazioa eman dezaketen beste pertsona batzuk.

Informazioa kontrastatzeko bilerak, batzordeburuaren edota Batzordearen beraren iritziori jarraikiz, eragile inplikatu guztiekin batera edota horietako batekin edo batzuekin banaka egin ahal izango dira.

Garrantzitsua da adieraztea, jaso beharreko informazioaren konfidentzialtasuna kontuan hartuta, arretaren ardura duten udal teknikariei (gizarte zerbitzuetako teknikariak) edo arreta protokoloak koordinatzeko ardura dutenei (berdintasun teknikariak) dagokiela informazio hori jasotzea eta erabaki mailetara helaraztea (Bozeramaileen batzordeak, udalerrri bakoitzak izendatutako batzorde edo egiturak), erantzun publiko egokia balioetsi eta diseinatu dezaten.

4. Pausoa. Eragile sozialekin koordinatzea (mugimendu feminista, bestelakoak...)

Gomendagarria da mobilizazio edo elkarretaratzeen deialdiak udalerriko eragile sozialekin era koordinatuan egitea, bai deialdi bateratuak egiteko, bai udalerrian egindako deialdietara batzeko edo, gutxienez, bi deialdiak aldi berean ez gertatzeko.

5. Pausoa. Bozeramaileen Batzordearen premiazko deialdia

Erasoaren balorazioa egin eta gero, udalerriak Bozeramaileen Batzordea deituko du adostutako akzioak onartzeko eta kontzentrazioaren deialdia erabakitzeko.

6. Pausoa. Udal eta foru mailako erantzuna

Arestian aipatu ditugun elementu guztiak aintzat harturik, dagokion egiturak urratu diren eskubideen larritasun maila, gizartean izandako eragina eta erasotik eratorritako beste elementu batzuk baloratuko ditu, horrela, erantzun publikoaren proposamena garatu ahal izateko.



	0 Eszenatokia
Aktibazioa eragiten duten gertaerak	<p>Tratu txar egoera batetik eratorritako emakume baten heriotza bere bikotearen edo bikote ohiaren eskutik.</p> <p>Eraso sexual baten ondorioz emakume bat erailtzen dutenean.</p>
Udalerrri mailako koordinaziorako jarraibideak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Biktima erroldaturik dagoen Udaletxeak Osoko Bilkura deituko du, gaitzespenerako eta familia babesteko deklarazio instituzionala onartuko du, eta biztanleriaren deialdia egingo du, ahal den neurrian, eragile sozialekin akordio batera helduz, horrela, honek ere parte-hartzeko beharrezkotzat jotzen diren jardueretan (kontzentrazioak, manifestazioak eta beste batzuk), momentu oro biktimen familiei informatuz. 2. Udaletxeak egindako deialdietan <u>parte-hatzeko eskaera bat bidaliko</u> dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendariari.
Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatzeko jarraibideak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Indarkeriaren biktimen arretaz arduratzen diren udalerriko zerbitzuak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailarekin koordinatuko da biktimarekin edo bere familiarekin harremanetan jartzeko. 2. Biktima Udaleko edo Aldundiko zerbitzu batekin harremanetan egon bada edo badago, arreta hau zabalduko da erasotik eratorritako beharrianak asetzeko.
Ekintzak	Erakunde arteko II. akordioaren jarraipen batzordearen erabakia, 2013ko maiatzekoa, etxeko tratu txarregatik heriotza eta sexu eraso kasuetan jarduteko prozedurak ezarritakoak. ⁶
Baliabideak	Erakunde arteko II. akordioaren jarraipen batzordearen erabakia, 2013ko maiatzekoa, etxeko tratu txarregatik heriotza eta sexu eraso kasuetan jarduteko prozedurak aipatzen dituenak ⁷ .

⁶ Ikusi II. Eranskina

⁷ Ikusi II. Eranskina



	1 Eszenatokia	
	Erantzun publikoko protokoloa daukate	Ez daukate erantzun publikoko protokolorik
Aktibazioa eragiten duten gertaerak	Udalak, Mankomunitateko edo Eskualdeko protokoloan ezarritakoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bikotekideak, bikotekide ohiak, senide batek, ezagun edo ezezagun batek emakumea hiltzea edo hiltzen saiatzea. - Genero indarkeriaren biktima den emakume baten seme-alabak hiltzea edo hiltzen saiatzea. - Indarkeria sexistaren biktima hiltzea, denbora bat lehenago izandako eraso baten ondorioz.
Udalerrri mailan koordinatzeko jarraibideak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Udalak, Mankomunitateak edo Eskualdeak <u>lekuko protokoloa jartzen du martxan</u>. 2. Larrialdiko erantzuna emateko egiturak <u>aurrera eraman beharreko akzioak</u> ezartzen ditu. 	<p>Edozein bideren⁸ bidez Udaletxeak lehenago aipatutako gertaera eragile baten berri badauka:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Biktima erroldaturik dagoen Udaletxeak urgentziazko Osoko Bilkura edo Bozeramaileen Batzordea deituko du 24 ordu igaro baino lehen. 2. Bilkura edo Batzorde horrek, gaitzespenerako eta familia babesteko <u>deklarazio instituzionala onartuko du</u>. 3. <u>Biztanleriaren deialdia egingo da</u>, ahal den neurrian, <u>elkarteen mugimenduarekin</u> akordio batera helduz, horrela honek ere parte-hartzeko beharrezkotzat jotzen diren jardueretan. Momentu oro biktimaren familiari egoeraren berri emango zaio.
Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Koordinatzeko jarraibideak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kasuaren gaineko informazioa ez bada Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez eskuratu, harremanetan jarriko da Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoarekin. 2. Indarkeriaren biktimen arretaz arduratzen diren udalerriko zerbitzuak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailarekin koordinatuko da biktimarekin edo bere familiarekin harremanetan jartzeko. 3. Biktima Udaleko edo Aldundiko zerbitzu batekin harremanetan egon bada edo badago, arreta hau zabalduko da erasotik eratorritako beharrianak asetzeko. 	

⁸ Biktimaren bidez, bere inguruaren bidez, udalerriko zerbitzuren bat jakinaren gainean badago, Ertzaintza, elkarte sareak, mugimendu feministak, edo beste talde sozial batzuen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez edo tokiko edota nazio mailako telekomunikabideen bidez.



1 Eszenatokia		
	Jarduerak	Baliabideak
Udalaren ekintzetarako jarraibideak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Salaketa eta gaitzespenaren jakinarazpena, alkateak sinatua, 2. Egintza (ezarritako lekuan) era publiko batean gaitzesteko egindako deialdi instituzionala. 3. Udaleko langileei deitzea erantzun publikoan parte har dezaten. 4. Udaletxearen aurrean “minutu bat” isilik igarotzea eraso gertatu eta hurrengoko eguneko 12:00-etan. 5. Salatzen duen ikurra toki publiko batean jartzea (puntu lila, pankarta etab.). 6. Egingo den salaketa komunikatua telekomunikabideen bitartez, eta udaleko hedapen kanal ezberdinen bitartez jakinaraztea. 7. Salaketa publikorako egintza: kontzentrazioa, manifestazioa, ibilbidea etab. 8. Erasoaren hurrengo egunerako programaturik dauden egintza ezberdinak (jaietakoak adibidez) bertan behera utziko dira. 9. Udalerriak erantzun publikoko protokoloa badu, bertan ezartzen diren bestelako jarduera guztiak. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Komunikazio instituzionalaren eredia. 2. Deialdirako eredia. 3. Barne informaziorako eredia. 4. Puntu lila, indarkeria sexista salatzen duen pankarta etab., 5. Pentsarako nota eredia. 6. Web orrian eta sare sozialetan gaitzespena adierazteko eredia (mezua+ irudiak). 7. Pankarta, kartelak, audio edota bideo euskarriak etab. 8. Jarduerak bertan behera utziko direla jakinarazteko komunikazio eredia. 9. Udalerriak erantzun publikoko protokoloen bat baldin badu, bertan ezartzen diren bestelako baliabide batzuk.



2 Eszenatokia		
	Erantzun publikoko protokoloa daukate	Ez daukate erantzun publikoko protokolorik
Aktibazioa eragiten duten gertaerak	Udaleko, Mankomunitateko edo Eskualdeko protokoloan ezarritakoak	<ul style="list-style-type: none"> - Biktimaren osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten lesio larriak eragin dituen erasoak. - Sexu erasoak, sexu abusua eta erasoarekin batera, hau larritzen duten beste egoera batzuk; hala nola bahiketa, eraso kolektiboa, konortea galaraztea edo konorte galtze hori erasotzeko baliatzea. - Sexu jazarpenera edota jazarpen sexistaren laneko edota irakaskuntzako esparruan edo beste esparru batzuetan, jazarpen hori denboran zehar errepikatzen auzeratu dagoenean. - Erasotzailea edo erasotzaileak funtzionario publikoak, segurtasun gorpuetako langileak edo udalerriko agente esanguratsuetako langileren bat den kasuetan edota erasoak behin baino gehiagotan eman bada erasotzaile berdinaren eskutik (biktimaren bikote edo bikote ohia izan edo izan ez den kasuetan), leku berean eta hemen aurreikusten ez diren egoeretan, delitua larriagotzat hartu ahal izango da gerora begira.
Udalerrri mailan koordinatzeko jarraibideak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Udalak, Mankomunitatean edo Eskualdeak <u>lekuko protokoloa jartzen du martxan.</u> 2. Larrialdiko erantzuna emateko egiturak <u>aurrera eraman beharreko akzioak</u> ezartzen ditu. 	<p>Edozein bideren⁹ bidez Udaletxeak lehenago aipatutako gertaera eragile baten berri badauka:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Biktima erroldaturik dagoen Udaletxeak urgentziatzeko Osoko Bilkura edo Bozeramaileen Batzordea deituko du 24 ordu igaro baino lehen. 2. Udaleko teknikariek gertatutako egintzak kontrastatu eta baieztatuko dituzte, bertatik ateratako ondorioak Bilkurari edo Bozeramaileen Batzordeari jakinaraziz. 3. Bilkura edo Batzorde horrek, gaitzespenerako eta familia babesteko deklarazio instituzionala onartuko du. 4. Biktima edo bere familia ados badaude, biztanleriaren deialdia egingo da, ahal den neurrian, elkarrekin mugimenduetan akordio batera helduz, horrela, honek ere parte-hartzeko beharrezkotzat jotzen diren jardueretan. Momentu oro biktimaren familiari egoeraren berri emango zaio.

⁹ Biktimaren bidez, bere inguruaren bidez, udalerriko zerbitzuren bat jakinaren gainean badago, Ertzaintza, elkarte sareak, mugimendu feministak, edo beste talde sozial batzuen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez edo tokiko edota nazio mailako telekomunikabideen bidez.



2 Eszenatokia		
Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatzeko jarraibideak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kasuaren gaineko informazioa ez bada Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez eskuratu, harremanetan jarriko da Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoarekin. 2. Indarkeriaren biktimen arretaz arduratzen diren udalerriko zerbitzuak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailarekin koordinatuko da biktimarekin edo bere familiarekin harremanetan jartzeko. 3. Biktima Udaleko edo Aldundiko zerbitzu batekin harremanetan egon bada edo badago, arreta hau zabalduko da erasotik eratorritako beharrianak asetzeko. 	
	Jarduerak	Baliabideak
Udalaren ekintzetarako jarraibideak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Salaketa eta gaitzespenaren jakinarazpen instituzionala, alkateak sinatua. 2. Egintza (ezarritako lekuan) era publiko batean gaitzesteko egindako deialdi instituzionala. 3. Udaletxeko langileei deitzea erantzun publikoan parte har dezaten. 4. Salatzen duen ikurra toki publiko batean jartzea (puntu lila, pankarta etab.). 5. Egingo den salaketa komunikatua telekomunikabideen bitartez, eta udaleko hedapen kanal ezberdinen bitartez jakinaraztea. 6. Salaketa publikorako egintza: kontzentrazioa, manifestazioa, ibilbidea etab. 7. Udalerririk erantzun publikoko protokoloa badu, bertan ezartzen diren bestelako jarduerak guztiak. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Komunikazio instituzionalaren eredua. 2. Deialdirako eredua 3. Barne informaziorako eredua. 4. Puntu lila, indarkeria sexista salatzen duen pankarta etab. 5. Prentsarako nota eredua. 6. Web orrian eta sare sozialetan gaitzespena adierazteko eredua (mezua+ irudiak). 7. Pankarta, kartelak, audio edota bideo euskarriak etab. 8. Udalerririk erantzun publikoko protokoloren bat baldin badu, bertan ezartzen diren bestelako baliabide batzuk.



		3 Eszenatokia	
		Erantzun publikoko protokoloa daukate	Ez daukate erantzun publikoko protokolorik
Aktibazioa eragiten duten gertaerak	Udalerriko protokoloetan aurreikusten ez diren kasuak, non emakume biktimak ez duen lesiorik edo lesio larririk jasan, baina honen ezaugarriengatik, udalerrigatik edo beste edozein arrazoi dela eta alarma sozial berezi edo esanguratsua eragin duenean.		<ul style="list-style-type: none"> - Leku publikoetan gertatutako eraso sexistak. - Lesio gabeko edo lesio oso larririk gabeko eraso bat, zeinak biktimaren ezaugarriengatik, udalerrigatik edo beste edozein egoera dela eta alarma sozial berezi edo garrantzitsutzat jo daitekeena eragin duenean. - Balorazio bat egin ondoren eskubideen aurkako urrapen berezitzat jo eta arestian aipatu ez den edozein egoeraren aurrean
Udalerrri mailan koordinatzeko jarraibideak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Udalak, Mankomunitatean edo Eskualdeak lekuko protokoloa jartzen du martxan. 2. Larrialdiko erantzuna emateko egiturak aurreikusten den erantzun publikoa berrikusten du kasuaren egoera berezietara egokitzeke. 		<p>Edozein bideren¹⁰ bidez Udalak lehenago aipatutako gertaera eragile baten berri badauka:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Biktima erroldaturik dagoen Udalak urgentziarako Osoko Bilkura edo Bozeramaileen Batzordea deituko du 24 ordu igaro baino lehen. 2. Udaleko teknikariek gertatutako egintzak kontrastatu eta baieztatuko dituzte, bertatik ateratako ondorioak Bilkurari edo Bozeramaileen Batzordeari jakinaraziz. 3. Bilkura edo Batzorde horrek, gaitzespenerako eta familia babesteko deklarazio instituzionala onartuko du. 4. Biktima edo bere familia ados badaude, biztanleriaren deialdia egingo da, ahal den neurrian, elkarteen mugimendurekin akordio batera helduz, horrela, honek ere parte-hartzeko beharrezkotzat jotzen diren jardueretan. Momentu oro biktimaren familiari egoeraren berri emango zaio.
GFArekin koordinatzeko jarraibideak	Larrialdiko erantzuna emateko egitura harremanetan jarriko da, hala erabakiz gero, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoarekin.		

¹⁰ Biktimaren bidez, bere inguruaren bidez, udalerriko zerbitzuren bat jakinaren gainean badago, Ertzaintza, elkarte sareak, mugimendu feministak, edo beste talde sozial batzuen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez edo tokiko edota nazio mailako telekomunikabideen bidez.



3 Eszenatokia		
Udalaren ekintzetarako jarraibideak	Jarduerak	Baliabideak
		<ol style="list-style-type: none"> 1. Salaketa eta gaitzespenaren jakinarazpen instituzionala, alkateak sinatua. 2. Egintza (ezarritako lekuan) era publiko batean gaitzesteko egindako deialdi instituzionala. 3. Udaleko langileei deitzea erantzun publikoan parte har dezaten. 4. Salatzen duen ikurra toki publiko batean jartzea (puntu lila, pankarta etab.). 5. Egingo den salaketa komunikatua telekomunikabideen bitartez, eta udaleko hedapen kanal ezberdinen bitartez jakinaraztea. 6. Salaketa publikorako egintza: kontzentrazioa, manifestazioa, ibilbidea etab. 7. Udalerriak erantzun publikoko protokoloa badu, bertan ezartzen diren bestelako jarduera guztiak.

Aipatutako erantzunaren berri emango zaio biktimari edota bere familiari (zeinari hasieratik jakinarazi zaion erantzun publiko bat emateko aukera), bertan, erantzun instituzionalak duen garrantzia eta bilatzen duen helburua azalduko zaie, eta dituzten zalantza edo esan beharrekoak kontuan izango dira.



6. Protokoloaren Jarraipena

Aurreikusitako helburuak bete diren eta erantzunaren irizpideak eta oinarriak era egokian bideratu diren jakiteko ezinbestekoa da izandako erantzun publikoaren jarraipena egitea.

Hauek izango dira jarraipenaren helburuak:

- Biktimei eta horien familiei arreta emateko adostutako neurriak gauzatu direla egiaztatzea.
- Erasoaren hasierako inpaktua igaro ondoren sortzen diren bestelako beharrak ikertzea, horiek estali diren edota estali behar diren moduarekin batera.
- Kasu bakoitzean edo urtebetean gertatu diren kasuetan ordain moral eta sinbolikora begira gara daitezkeen neurriak baloratzea.
- Batzordearen jarduera ebaluatzea, beharrezko aldaketak egitera begira Protokoloak erakutsitako eraginkortasunarekin batera.
- Arlo honetako ikaskuntzak jasotzen direla ziurtatzea, bai aplikatzera bai sistema bera hobetzera begira, horien balioa dokumentatzeko eta ebaluatzeko ezagutza eta informazioa sortzen dela ziurtatzearekin batera.



7. Eranskinak

7.1. I. Eranskina: Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontzeptu eta terminologia esparrua

Indarkeria matxista

Barne gogoeta eta kontsentsu prozesu luze baten emaitza gisa, 2014ko ekainean dokumentu batean jaso zuen Foru Aldundiak indarkeria matxistari buruz berak prestatu esparru kontzeptual eta terminologikoa¹¹. Esparru kontzeptual hori *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren V. kapituluan* – Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak – jaso zen, 51.1 artikuluan¹².

Gipuzkoako Foru Aldundiak indarkeria matxista terminoa erabiliko du, termino orokor gisa, sorburuan sozializazio bikoa eta genero desberdintasuna dituen indarkeriari buruz ari denean. Terminu horren barnean bi indarkeria mota sartzen dira:

Indarkeria sexistak, hau da, emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten dutena, eta emakumeen gaineko kontrola eta nagusitasuna betikotzea duena helburu.

Genero rol sozial bikoei eta horiei lotutako sexualitateari egokitzen ez zaizkien pertsonak jasaten dituzten beste indarkeria batzuk. Homofobia, lesbofobia eta transfobia izango genituzke.

Testuinguru horretan, Aldundiak erabaki zuen indarkeria matxistaren kontra borrokatzeko foru politika indarkeria sexistara bideratzea nagusiki, zeren eta Foru Aldundiak eskumen zuzenak baititu horren gainean eta, gainera, horixe baita hedatuen dagoen eta inpaktu sozial handiena duen indarkeria mota.

Foru Aldundiaren esparru kontzeptual eta terminologikoak aukera ematen digu indarkeria matxistaren egitura eta arrazoi esparrua zabaltzeko eta hori hobeto ulertzeko; gainera, ezinbesteko beste esparru batzuetara, hots, EAEko eta estatuko esparruetara egokitzeko modua ere ematen digu.

Erakunde publikoek indarkeria sexistari erantzuteko bere esku-hartze esparrua zabalgotu duten neurrian, kontzeptu eta termino desberdinak sortu eta egokitu dira. Kontzeptu horien xedea indarkeria matxista mota desberdinak ikusgarri egitea izan da, batetik, eta administrazio publikoen esku-hartzea zedarritzea bestetik, indarkeria sexistaren biktimei eman beharreko arretara begira.

Ondoren, administrazio publikoek erabiltzen dituzten terminoak jasoko ditugu.

¹¹ <https://www.gipuzkoa.eus/documents/2556071/2587709/Terminologi%CC%81a-+Indarkeria+matxistaren+arloko+kontzeptuak.pdf/>

¹² Foru arau honen ondorioetarako, indarkeria matxista izango dira sexu/genero/sexualitate sistemaren heteronormaltasunari aurre egiten dioten gorputzen aurkako kontrol, eraso, ukapen eta inposaketa zuzen, egiturazko eta sinbolikoak zein, sistema hori transgreditu gabe ere, sisteman bertan inplizituki dauden botere harremanak jasaten dituzten gorputzen kontra, hots, emakumeen kontra zuzenduak. Kasu bietan, indarkeria matxista horren barnean indarkeria sexistak eta indarkeria matxistaren beste forma batzuk sartzen dira, hala nola transfobia, lesbofobia eta homofobia.



Genero indarkeria

Definizio hau *abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoan*, jasotzen da. Horrenbestez, estatu esparrura egokiturik, genero indarkeria terminoa erabiliko dugu indarkeria sexista –bere formatako edozeinetan– zertzen duena bikotekidea edo bikotekide ohia denean.

Zehazki, 1/2004 Lege Organikoak jasotzen duen definizioa honakoa da: “indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere, indarkeria hori emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide diren edo izan diren gizonak, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan”.

Emakumeen kontrako indarkeria

1/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, jasotzen du ezen sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko dela emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badieziaioke, horren barnean sarturik.

Sexu indarkeria

Sexu izaerako indarkeria sexista adierazten du. Egungo kontzeptu juridikoak jasotzearen, sexu indarkeriak hartzen dituen hiru forma bereiziko dira:

- **Sexu erasoak:** indarkeria eta larderiaren bitartez gertatzen direnak.
- **Sexu abusuak:** Indarkeriarik edo larderiarik gabe zertuak. Horien barnean daude nahimenezko edo adimenezko ahalmena mugatua dutelako baliozko ezagutzarik ez duten emakumeei egindako abusuak
- **Sexu jazarpena:** ahozko jokaerak zein ahozkoak ez diren eta fisikoak diren jokaerak, sexu izaerakoak eta nahi ez direnak, laneko, irakaskuntzako edo antzeko harremanen esparruan egiten direnak, emakumearen duintasunaren kontra jotzeko edo duintasun hori urratzeko edota larderiako ingurune aurkako, laidogarri, umiliagarri edo iraingarria sortzeko asmoz edo sortu izanaren ondorioz zertuak.

Familia barruko sexu indarkeria

Izen hau erabiliko dugu familiako kideek (aita, anaia, aitona, osabak, etab.) neska, nerabe eta adin guztietako emakumeei jasanarazten dizkieten kontrol, eraso, arbuio, bazterkeria... mota guztiak adierazteko.

Honako litzateke normalean erabiltzen diren terminoen taula, EAE eta estatu mailako esparruarekiko dituen baliokidetasunak ere adierazita.



- › **Indarkeria matxista** = indarkeria sexista + (transfobia + lesbofobia + homofobia) + Genero barneko indarkeria

- › **Indarkeria sexista** = emakumeen kontrako indarkeria matxista
 - Indarkeria sexista = **emakumeen kontrako indarkeria** (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa)
 - Indarkeria sexista = genero indarkeria + indarkeria sexuala + Familia edo lan esparruko indarkeria, esparru birtualekoa, sozialekoa...

- › **Genero indarkeria** (abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa) = Indarkeria sexista bikotearen edo bikotekide ohiarekiko harremanaren esparruan

- › **Etxeko indarkeria** (Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen Arteko II. Akordioa) = indarkeria sexista familia esparruan = genero indarkeria + familia barruko indarkeria

- › **Sexu jazarpena** = indarkeria sexista laneko esparruan, eskolakoan, espazio birtualetan, espazio publikoetan eta sexu izaerakoak ez diren beste batzuk

- › **Sexu izaerako indarkeria sexista** = sexu erasoa + sexu abusua + sexu jazarpena (Sexu askatasunaren kontrako delituak, Kode Penalak; 178.-194. artikulak)



7.2. II. Eranskina: Erakunde arteko II. akordioaren jarraipen batzordearen erabakia, 2013ko maiatzekoa. Etxeko tratu txarreatatik heriotza eta sexu eraso kasuetan jarduteko prozedura

Etxeko tratu txarreatatik heriotza eta sexu eraso kasuetan jarduteko prozedurak

Prozedura honen xedea, batetik, arbuio instituzionala adieraztea eta biktimaren familiari eta, hala dagokionean, adin txikiko seme-alaba biktimei erakundearen laguntza erakustea da, eta bestetik, erakundeek eman arreta eta erakundearen esku-hartze eta koordinazioa hobetzea, azken batean emakume gehiago hiltzea saihestearren. Ondoko egoera hauetan jarriko dira martxan prozedurak:

Emakume bat bikotekideak edo bikotekide ohiak hiltzen duenean, etxeko tratu txarrezko egoera baten ondorioz.

Emakumea hiltzen dutenean tartean sexu erasoak izan dela.

1) Arbuioa eta biktimari erakundearen laguntza erakusteko prozedura, gizarte inpaktu handia duten oso kasu larrietan.

Egin beharreko pauso nagusiak honakoak dira:

- a) Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak dakienean emakume bat hila dela, heriotza hori etxeko tratu txarrezko egoera baten ondorioa izan dela edo tartean sexu erasoak izan dela uste izateko adina aztarna badela irizten badiu, berehala jarriko da harremanetan Jarraipen Batzordeko buruarekin. Akordioaren parte den beste edozein erakundek ere Jarraipen Batzordeko buruarengana jo ahal izango du, prozedura abian jarrarazteko moduko heriotza bat gertatu dela jakin orduko. Horrelakoetan, batzordeburua Segurtasun Sailarekin jarriko da harremanetan, prozedurak aurrera segitu behar duen zehaztearren.
- b) Gertaerak egiaztatu ondoren, Jarraipen Batzordeko buruak, ahalik eta lasterren, biktima erroldatuta dagoen herriko udalari emango dio aditzera eta, hala dagokionean, baita gertaerak izan diren herriko udalari ere, Batzordean partaide diren beste erakunde guztiei bezalaxe.
- c) Biktima erroldatuta dagoen herriko udalak Osoko Bilkura deituko du, arbuioa eta familiari babesa erakusteko adierazpen instituzionala onartuko du, eta herritarrak deituko ditu, ahal den guztietan elkarte mugimenduetarekiko kontsentsuaren bidetik, egoki irizten diren ekitaldietan (elkarretaratzea, manifestazioa...) parte har dezaten, biktimaren senideei informazioa emanez une oro. Ekitaldi horietan Eusko Jaurlaritzaren, dagokion foru aldundiaren, Legelarien Euskal Kontseiluaren eta dagokion mediku elkargoaren ordezkari bana izango da, gutxienez. Era berean, dauden gizarte balibideetarako aukera emango die udalak biktimen senideei eta, egoki iritziz gero, herri akzioa ere erabiliko du.
- d) Lehendakaritzatik, Emakunderen zuzendariaren bitartez eta, hala badagokio, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko titularraren bitartez, biktimaren senideekin jarriko dira harremanetan, laguntza eta elkartasuna adieraztearren.



2) Biktimaren sendiari, biktima diren adin txikiko seme-alabei eta beste biktima batzuei zuzendutako erakunde laguntza koordinatzea

Jarraipen Batzordeko buruak bultzatu egingo du dagokien erakundeen arteko koordinazioa, biktimaren sendiari eta inguruari, biktima diren adin txikiko seme-alabei eta, hala dagokionean, beste biktima batzuei erabateko laguntza eta dagozkien zerbitzuak eskaintzera begira.

3) Esku-hartzea edota biktimen arreta hobetzeko prozedura

a) Kasuan zuzenen inplikaturako erakundeek osatutako taldeak aztertuko du kasu zehatza, Emakundek koordinatuko duen prozesu batean. Analisi horretan, kasuaren historia kronologikoa egiten saiatuko dira, emakumearen ibilbide osoa berreskuratuz edozein administrazio edo zerbitzu publikok emakumearen lehen berria duen unetik abiatuta, eta edozein administrazio edo zerbitzu publikorekin izan dituen hartu-eman guzti-guztiak jasota.

Ibilbide hori oso-osorik jasoko da, hobetu daitezkeen alderdiak finkatzeko lanaren oinarria izango den dokumentuan. Dokumentu hori Jarraipen Batzordeari aurkezten zaion azken txostenean jasoko da.

b) Jarraipen Batzordeak egoki iritziz gero, txostena berriro aztertu ahal izango du erakunde arteko teknikari taldeak, proposaturako hobekuntza-alderdiak berrikusi ahal izatearren.

Azkenean, Jarraipen Batzordeak bide emango dio txosten horri, eta kasuan ari diren administrazio edo zerbitzu publiko guztiei eskatuko die bertan eskatzen diren hobekuntzak gauzatzea.



7.3. Baliabideak

Komunikazio instituzionalaren eredua: (1 eta 2 eszenatokiak)

Udalerriaren izenako Udalak gaitzespen gogorrena azaldu nahi du gure lurraldean berriki gertatutako eraso edo erailketa. sexistaren aurka, eta bere laguntza nahiz begikotasun osoa adierazi nahi die erasoak pairatu duen emakumeari eta bere ingurukoiei Udalak dituen informazio eta baliabide guztiak jarri ditu erasotako emakumearen esku, baita bere onera etortzeko prozesuan behar izan dezakeen laguntza guztia ere.

Udalerriaren izenako Udalak gertaeraren berri izan duenetik eta erasoari edo erailketari buruzko informazioa egiaztatu, erkatu eta zabaldu ondoren, *Emakumeen aurkako indarkeriari erantzun publikoa emateko Protokolo instituzionala* aktibatu du informazioa baloratzeko eta, biktimari edo bere gertukoiei egokia den arreta eman ahal izateko, beharrezkoa den koordinazioa ziurtatzeko. Arreta egokia bideratu dela ziurtatu eta informazioa baloratu eta gero, Udalerriaren izenako Udalak hurrengo erabakiak hartu ditu: alde batetik, Udalaren jarrera irmoa adieraztea, argi eta garbi esateko ez ditugula inola ere onartzen emakumeen eskubideak urratzen dituzten eraso makur hauek; eta, bestetik, herritar guztiei bide bat eskaintzea, gaitzespen argi bat agertu dezaten emakumeen aurkako indarkeriaren aurka, indarkeria ez baita soilik eraso edo hilketa pairatzen duten emakumeen arazoa, baizik emakume guztiena.

Emakumeen aurkako indarkeriak erasotzaile eta biktima banakakoak ditu beti, noski, baina arazo sakon bat dauka jatorrian: emakumeak kontrolpean eta mendean izan nahi dituen ideologia. Beraz, indarkeria hori ez da ekintza bakartuen edota azalpenik gabeko gertakarien emaitza. Aitzitik, generoen gaineko aurreiritziak, gizartean aski errotuta dauden horiek dira, hain zuzen, halako ondorio larri eta tamalgarrien sortzaile. Emakumeak desberdintasun eta menpekotasun materialeko egoera batera, bizitza prekario batera behartzen ditu gizartearen antolamenduak. Ez ditu herritar osotzat hartzen, gizonezkoen maila berean, eta ez die aukerarik ematen oinarrizko eskubideen jabe izateko.

Udalerriaren izenako Udalak ardura osoa du udalerrian bizi garen pertsona guztiok eskubide guzti-guztien jabe garela bermatzeko. Beraz, ez du atsedunik hartuko ahalegin honetan, gure bizikidetzaren demokratikoaren oinarriak auzitan jartzen dituen arazo sozial larri honen irtenbidea bilatu beharra baitago guztion artean. Langintza horren barruan, ezinbestekoa da adierazpide egokiak eskaintzea Udalerriaren izenako herritarrei, oro har, emakumeen aurkako eraso guztiak irmotasunez gaitzetsi ditzaten. Erasoa jasan duten emakumeek guztion laguntasuna sentitu behar dute, ikusi behar dute guztion erantzukizuna eta ardura dela haiei laguntzea, eta erasotzaileei argi eta garbi azaltzea guztion artean mugatu egingo dugula beldurra hedatzeko estrategia zital horren ahalmena, emakumei erantzun-tresna egokiak emanez, eta gizon erasotzaileei, berriz, ekintza makur horien ondorioak ordainaraziz.

Horrenbestez, Udalerriaren izenako Udalak batu egiten da elkarte feministek egindako elkarretaratze deialdira / dei egiten du elkarretaratzera eguna/ordua/tokia.

Era berean, Udalerriaren izenako Udalak dei egiten die herritar guztiei ekitaldi horietan parte hartzera, indarkeria sexistaren aurka agertzea eta indarkeria horren biktimei bakarrik ez daudela adieraztea.



Salaketa publikorako ekitaldirako deialdi eredua (1. eszenatokia eta 2. eszenatokia)

Udalerriaren izenako Udalak gaitzespen gogorrena azaldu nahi du gure herrian berriki gertatutako eraso edo erailketa sexistaren aurka, eta bere laguntza nahiz begikotasun osoa adierazi nahi die erasoak pairatu duen emakumeari eta bere ingurukoei.

Udalerriaren izenako Udalak dituen informazio eta baliabide guztiak jarri ditu erasotako emakumearen esku, baita bere onera etortzeko prozesuan behar izan dezakeen laguntza guztia ere.

Udalerriaren izenako Udalak gertaeraren berri izan duenetik eta erasoari edo erailketari buruzko informazioa egiaztatu, erkatu eta zabaldu ondoren, *Emakumeen aurkako indarkeriari erantzun publikoa emateko Protokolo instituzionala* aktibatu du informazioa baloratzeko eta, biktimari edo bere gertukoei egokia den arreta eman ahal izateko, beharrezkoa den koordinazioa ziurtatzeko. Arreta egokia bideratu dela ziurtatu eta informazioa baloratu eta gero, Udalerriaren izenako Udalak hurrengo erabakiak hartu ditu: alde batetik, Udalaren jarrera irmoa adieraztea, argi eta garbi esateko ez ditugula inola ere onartzen emakumeen eskubideak urratzen dituzten eraso makur hauek; eta, bestetik, herritar guztiei bide bat eskaintzea, gaitzespen argi bat agertu dezaten emakumeen aurkako indarkeriaren aurka, indarkeria ez baita soilik eraso edo hilketa pairatzen duten emakumeen arazoa, baizik emakume guztiena.

Xede horrekin, Udalerriaren izenako Udalak dei egiten die herritar guztiei ekitaldi horietan parte hartzera, indarkeria sexistaren aurka agertzea eta, indarkeria horren biktimei, bakarrik ez daudela adieraztea.

Barruko informazio oharra eta jardueren etetea jakinarazteko oharren eredua; edo, hala badagokio, Gobernuako kideek berariazko aipamena egitea. (1. eszenatokia)

Udalerriaren izenako Udalak gaitzespen gogorrena azaldu nahi du gure herrian berriki gertatutako eraso edo erailketa sexistaren aurka, eta bere laguntza nahiz begikotasun osoa adierazi nahi die erasoak pairatu duen emakumeari eta bere ingurukoei.

Udalerriaren izenako Udalak dituen informazio eta baliabide guztiak jarri ditu erasotako emakumearen esku, baita bere onera etortzeko prozesuan behar izan dezakeen laguntza guztia ere.

Gainera, Udalerriaren izenako Udalak eraso edo erailketa aurkako gaitzespena azalduko du minutu bateko isilunea eginez udaletxearen aurrean (eguna) eguerdiko 12:00etan, eta Udalerriaren izenako Udaleko langile guztiei dei egiten die bertan parte hartzera, indarkeria sexistaren aurka agertzea eta, indarkeria horren biktimei, bakarrik ez daudela adieraztea.

Hori dela eta, Udal Gobernuak erabaki du deitutako beste ekintza publiko batzuk etetea, baldin eta ekitaldi honekin bat badatoz, baita Udalerriaren izenako Udalak atxikitzeko deia egin duen gaitzespen jardueren ordutegi bererako aurreikusitako beste deialdi instituzional batzuk ere.



Informazio oharra Udalerriaren izenako Udaleko langile guztiei (1. eszenatokia eta 2. eszenatokia)

Udalerriaren izenako Udalak gaitzespen gogorrena azaldu nahi du gure herrian berriki gertatutako eraso edo erailketa sexistaren aurka, eta bere laguntza nahiz begikotasun osoa adierazi nahi die erasoak pairatu duen emakumeari eta bere ingurukoei.

Udalerriaren izenako Udalak dituen informazio eta baliabide guztiak jarri ditu erasotako emakumearen esku, baita bere onera etortzeko prozesuan behar izan dezakeen laguntza guztia ere.

Udalerriaren izenako Udalak gertaeraren berri izan duenetik eta erasoari edo erailketari buruzko informazioa egiaztatu, erkatu eta zabaldu ondoren, *Emakumeen aurkako indarkeriari erantzun publikoa emateko Protokolo instituzionala* aktibatu du informazioa baloratzeko eta, biktimari edo bere gertukoei egokia den arreta eman ahal izateko, beharrezkoa den koordinazioa ziurtatzeko. Arreta egokia bideratu dela ziurtatu eta informazioa baloratu eta gero, Udalerriaren izenako Udalak hurrengo erabakiak hartu ditu: alde batetik, Udalaren jarrera irmoa adieraztea, argi eta garbi esateko ez ditugula inola ere onartzen emakumeen eskubideak urratzen dituzten eraso makur hauek; eta, bestetik, herritar guztiei bide bat eskaintzea, gaitzespen argi bat agertu dezaten emakumeen aurkako indarkeriaren aurka, indarkeria ez baita soilik eraso edo hilketa pairatzen duten emakumeen arazoa, baizik emakume guztiena.

Emakumeen aurkako indarkeriak erasotzaile eta biktima banakakoak ditu beti, noski, baina arazo sakon bat dauka jatorrian: emakumeak kontrolpean eta mendean izan nahi dituen ideologia. Beraz, indarkeria hori ez da ekintza bakartuen edota azalpenik gabeko gertakarien emaitza. Aitzitik, generoen gaineko aurreiritziak, gizartean aski errotuta dauden horiek dira, hain zuzen, halako ondorio larri eta tamalgarrien sortzaile. Emakumeak desberdintasun eta menpekotasun materialeko egoera batera, bizitza prekario batera behartzen ditu gizartearen antolamenduak. Ez ditu herritar osotzat hartzen, gizonezkoen maila berean, eta ez die aukerarik ematen oinarritzko eskubideen jabe izateko.

Udalerriaren izenako Udalak ardura osoa du udalerrian bizi garen pertsona guztiok eskubide guzti-guztien jabe garela bermatzeko. Beraz, ez du atsedunik hartuko ahalegin honetan, gure bizikidetzaren demokratikoaren oinarriak auzitan jartzen dituen arazo sozial larri honen irtenbidea bilatu beharra baitago guztion artean. Langintza horren barruan, ezinbestekoa da adierazpide egokiak eskaintzea Udalerriaren izenako herritarrei, oro har, emakumeen aurkako eraso guztiak irmotasunez gaitzetsi ditzaten. Erasoak jasan duten emakumeek guztion laguntasuna sentitu behar dute, ikusi behar dute guztion erantzukizuna eta ardura dela haiei laguntzea, eta erasotzaileei argi eta garbi azaltzea guztion artean mugatu egingo dugula beldurra hedatzeko estrategia zital horren ahalmena, emakumeei erantzun-tresna egokiak emanez, eta gizon erasotzaileei, berriz, ekintza makur horien ondorioak ordainaraziz.

Horrenbestez, Udalerriaren izenako Udalak eraso edo erailketa aurkako gaitzespena azalduko du minutu bateko isilunea eginez udaletxearen aurrean (eguna) eguerdiko 12:00etan, eta Udalerriaren izenako Udaleko langile guztiei dei egiten die bertan parte hartzera, indarkeria sexistaren aurka agertzea eta, indarkeria horren biktimei, bakarrik ez daudela adieraztea.



8. Web-gune interesgarriak

- Zer egin indarkeria sexistaren aurrean?
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/berdintasuna/lan-ildoak/indarkeria-sexista>
- Emakunde: emakumeen aurkako indarkeria
<http://www.emakunde.euskadi.eus/indarkeria/-/indarkeria/>
- Emakumeen aurkako indarkeria ematen denerako jendaurreko jarduerarako gomendioak (Berdinsarea, EUDEL)
<http://www.eudel.eus/eu/archivos/libro/emakumeenaurkakoindarkeriagomendioak.pdf>
- Puntu lila
<http://www.emakunde.euskadi.eus/indarkeria/-/lila-puntu/>
- Beldur Barik programa
<http://beldurbarik.org/eu/>